

AIARALDEA *hemen*



GOTZON MINGUEZ:
“100 familia gerturaten dira urtero laguntza psikologikorako zerbitzura” 6 or.

MUSIKA ASTEA:
Azaroaren 17tik 26ra dozenaka musika taldek girotuko dute Urduña 18 or.



Genero indarkeria salatzen deia



TARTEKARI SAREA

ADI EMAKUMEAK ETA MATXINTXU ELKARTEEK 24 ORDUZ ESKAINIKO DUTE ARRETA ETA AHOLKULARITZA TELEFONO BIDEZ 10-11 or.

HERRIZ HERRI 2
Saratzoko sailhesbidea hizpide Batzar Nagusietan
Urduña eta Amurrioko alkateek eta administrazio batzarretako ordezkariak hartu zuten hitza. 2

CELen ekoizpen linea arriskuan
Artziniegako ekoizpen linea ixtea eta lan baldintzak okertzea da enpresaren balizko eroslearen asmoa. 5

KIROLA 19
Koba Cycling CX Team ziklokross talde berria sortu da
Amurrioko, Laudio eta Aiarako txirrindulariz dago osatua taldea. Abenduan Belgikara joateko asmoa dute, munduko txapelketan parte hartzeko. 19

Arrakastatsua izan da Mendi Maratoia
300 lagun bertaratu ziren Urduñako Mendi Maratoiaren lehen ediziora. Eskualdeko kirolariak gailendu ziren sailkapenean 19

KO utzi zuen Aratz Garmendiak “faxismoaren ikurra”
Jose Luis Zapater “Titin” valentziarra garaitu zuen borrokalari aiaraldearrak Bilbao Arenan, 10.000 lagun aurrean. 20

ZURE MARKARI BULTZADA EMAN

KAMISETA, USB-AK, BOZGORAILUAK, ... BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU !!!

NAHIERAN PERTSONALIZATUTA



GUREKIN ERE EUSKARAZI



PRODUKTU PROMOZIONALA JANTZI ZERBITZUAK MARKA KUDEAKETA!!!

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Aiaraldea

Batzar Nagusietara eramán dituzte Saratxoko sahesbidearen gaineko kezkak



Idoia Aginako Urduñako alkateak hartu zuen hitza bilkuran, besteak beste. **Urduñako Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Saratxoko sahesbidearen proiektua izan zuten hizpide iragan ostegunean Arabako Batzar Nagusietan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren V. Batzordean.

Aiaraldeko hainbat ordezkari politikok hartu zuen parte bertan: Urduñako Idoia Aginako eta Amurrioko Josune Irabien alkateak; edota Delikako, Tertangako, Artomañako, Aloriako, Lekamañako zein Saratxoko Administrazio Batzarretako presidentek.

“Istripu andana”

Ordezkariek banan-banan igaroziren bilkura-gelatik, sahesbidearen proiektuaren inguruko iritzia plazaratu eta ahalduen galderei erantzuteko. Idoia Aginako izan zen lehena hitza hartzen. Errepide horretan egondako “istripu andana” aipatu zuen, bide horrek Urduñaren komunikaziorako duen garrantzia azpi-

marratuz. Horregatik eskatu zuen proiektua ahal bezain laster esleitu eta gauzatzea, “oraingo lege-agintaldia amaitu baino lehen”. Delikako, Tertangako, Artomañako eta Aloriako ordezkariak ere nabarmendu zuten errepidean egondako “istripu kopuru handia”.

Josune Irabien Amurrioko alkateak, “gaur egungo proiektuarekin” ados ez dagoela adierazi zuen: “Sahesbidearen aurkako mobilizazioetara joan naiz batzuetan, eta gaur egun ere joango nintzateke, badituelako gus-tuko ez dudan zenbait kontu”. Bibrilgunearena da aldatu beharreko elementuetako bat, Irabien aburuz.

“Polizia ona eta txarra”

Lekamaña eta Saratxoko ordezkariak izan ziren iritzia ematen azkenak. Haserre agertu ziren bi herrietako kideak. Obraren berri jaso ez izana salatu zuten Lekamañako bizilagunek, “Saratxoko Administrazio Batzarreko kideen eskutik jaso

dugu lehenbiziko informazioa”. Horrez gain, planteatutako obra “makro-proiektutzat” jo zuten. Saratxoko ordezkariak “polizia onaren eta txarraren” papera egitea leporatu zioten Aldundiari. “Herriko pertsona nagusiak presionatu dituzte desjabetzeen paperak senideekin kontsultatzeke astirik eman gabe sinatzeko”.

Hormigoia eta lurra

Proiektuari dagokionez, saratxoarren esanetan, ez dakite Arabako Foru Aldundiak alternatibarik aztertu duen: “Ez digute inoiz balizko beste aukerendokumentaziorik aurkeztu”. Zentzu horretan, proiektuak herriko bizimoduan izango duen eragina nabarmendu zuten: “Abeltzain batzuek euren bizimodua utzi beharko dute, ez dutelako lan egiteko tokirik izango”. Horregatik, “hormigoia lurraren gainetik” jarri izana tamaldu zuten saratxoarrek. Internet bidez egon zen bilera zuzenean jarraitzeke aukera.

4.000 ahobizi eta belarriprest aktibatu dira dagoeneko



Hainbat ekintza egin da kanpaina zabaltzeko. **Aitor Fernandez de Pinedo**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urriaren hasieran Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Urduñan aurkeztu zuen aurtengo euskararen eguna eskualde osoan elkarrekin aldarrikatzeko “Irten armairutik” dinamika. 14 urtetik gorako herritarrek aktibatzea eta hizkuntz ohiturak aldatzea xede duen kanpainak emaitza ezin hobea izan du antolatzaileen iritziz, “gaur gaurkoz 3.703 herritar eta espazio publikok hartu dute ahobizi edo belarriprest izateko konpromisoa,

eta izen emateak gora jarraitzen du etengabe”. Kanpainak aurrera jarraitzen du, eta izen-ematea oraindik irekita dago. Zentzu horretan, jende gehiagok eskainitako konpromisoa hartzea aurreikusitako kideek.

Astebeteko txandak

Erronkaren lehen astean (azaroak 3-10) Arrankudiaga, Zollo eta Arakaldoko herritarrek egin zuten txanda, guztira 252 lagunek jantzi zuten soinean txapa eta aldean hartu konpromisoa. Areta, Laudio, Okondo eta Orozkoko bizilagunak egiten ari dira bigarren txanda.

%43 jaitsi da Arabako Txakolinaren uzta

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Jaitsiera nabarmena izan du Arabako Txakolinaren uztak aurtan. 373.024 kilo mahats jaso dituzte guztira, iaz 659.126 kilo jaso zituzten bitartean. %43ko jaitsiera eman dela esan nahi du horrek. 345.000 txakolin botila ekoiztu ahalko dituzte lortutako kopuruarekin, egin dituzten aurreikuspenen arabera.

Hainbat faktorek zerikusia dute uztaren txikiagotzean. Jatorrizko lizendapenaren ardura dunen arabera. Martxoan eta apirilaren 27an egondako izozteak izan dira kausa nagusia. Maiatzean eta ekainean egon-

dako harri-erauntsiek ere eragina izan dute: “Horrez gain, mahasti askok mildiu gaixotasuna pairatu dute”.

Aipatutako aldagaiak medio, irailaren 19an ekin zioten mahats-bilketari, ohikoan baino 20 egun lehenago.

Jaitsiera “kezkarria”

Jaitsiera hori ematea espero zuten jatorrizko lizendapenaren ardura dunek, baina “kezkarria” dela gaineratu dute. Hala ere, jasotako mahatsaren kalitatea “oso ona” dela azpimarratu dute. Urtarrilean eta otsailean egingo dituzte kalifikazio dastateak, eta iaz lortutako kalitate maila mantentzea espero dute.

Orozko

Auzokideen 43 ideia jaso dituzte aurrekontuak osatzeko

Auzokideek eginiko 43 proposamen jaso ditu Orozkoko Udalak parte hartze prozesu baten bidez, 2018ko aurrekontuak osatzeari begira.

Mota askotako ideiak helarazi dituzte herritarrek: haurrentzako parkeak berritzea, auzoetan mantentze lanak egitea, zenbait bidetan argiztapena hobetzea, kiroldegian makina berriak jartzea edota foru errepidean oinezkoentzako igarobidea jartzea, besteak beste.

Tokiko erakundeak adierazi du proposamen horietakobatzuk aintzat hartuko dituztela aurrekontuak osatzerako orduan.

Ibarrako etxebizitza hutsei ez zaie errekar gurik ezarriko

2018an hainbat ordenantza fiskal moldatzea erabaki du Orozkoko Udalak. KPIaren (Kontsumo Prezio Indizea) arabera igoera ezarriko du (aurten % 1,8koa izango da). Hala ere, Donibane Aretoko zinema eskaintzaren prezioari ez zaio igoera hori aplikatuko: 50 zentimo garestituko da sarrera, espazioa eta zerbitzua hobetzeko.

Halaber, Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga ere moldatu dute, Ibarra auzoko etxebizitza hutsei errekar gurua ez aplikatzeko. Josu Sanpedro alkateak azaldu duenez, iaz hasi ziren herriko etxebizitza hutsei zerga hori aplikatzen, baina auzoak ordaintzetik salbuetsita geratu ziren, herrigunean dauden zerbitzua eta baliabideak ez dituztelako. "Ibarra auzoa herrigunean dago ofizialki, baina ez ditu zerbitzu eta baliabide horiek. Horregatik erabaki da errekar gurua ez aplikatzea", zehaztu du.

Bestalde, ordenantzetan zehaztu da euskara ikasteagatik % 75ko hobaria ematea lan merkatuan dauden langabetuei soilik, ikasleei % 50ekoa ezartzen zaielako.

Hiru lan saritu dituzte film laburren lehiaketan



Donibane aretoan egin zen sari banaketa. Supelaur K.E.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Orozkoko Film Laburren Lehiaketak baditu irabazleak. J. Larrea Cuck, María Matesanzek eta Jorge Ibáñezek lortu zuten lehen postua, "Norbaik" pelikularekin. Luisan García eta Luis Santosen "Ko-

loretako txoriak" lanak eskuratu zuen bigarren saria, eta Alex Telloren "Logelan" filmak, aldiz, hirugarrena.

Supelaur Kultur Elkarteak antolatu du lehiaketa, Orozkoko Udalaren laguntzarekin. Azaroaren 3an egin zen sari banaketa, Donibane aretoan.

Epaileak arrazoia eman dio Artiachek kaleratutako langileari

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bilboko epaitegiak ebatzi duenez, bidegabeki kaleratu zuen Artiachek langile bat. Kontratu amaitu zela argudiatuta bota zuten behargina, lantegian 14 urtez modu ez jarraituan lanean

egon ostean. Epaileak ondorioztatu du langile finkoa zela; eta, ondorioz, kaleratzea ez dela egokia izan. Sindikatuek positiboki baloratu dute epaia, helburua "kaleratze nulua" lortzea zen arren. LABen ustez, "jazarpen sindikala" dago enpresaren jokabidearen atzean.

Dena %40ko BEHERAPENEAN etenagatik

Anita Berria

Izan zaituz Olentzero baino azkarragoa

Araba kalea, LAUDIO

Okondo

Igerilekuko makalak moztuko dituzte



Makal zaharkituak moztu eta berriak landatuko dituzte. Okondoko Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Okondoko Udalak jakinarazi duenez, udal-igerilekuko makalak moztuko ditu. "Zuhaitz batzuk oso zahartuak daude termi-

ten eraginez, eta haizea dagoenean apurtu egiten dira", azaldu dute. Makal gazteenak mantendu egingo dira, eta hurrengo Zuhaitz Egunean gehiago landatuko dituzte, "baso berri eta atsegina" eratzeko.

elkarlan asesores

www.elkarlan.eu

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Juridikoa eta Kontabilitatekoa

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

herriz herri

Amurrio

Ikasleek erabaki dute Zabalekoko jolastoki berria nolakoa izango den



Ikastetxeko ikasgela guztietan bozkatu dituzte balizko proiektuak. Amurrioko Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Zabaleko ikastetxean 100 metro koadro inguruko jolastokia jartzea. Hori izan zen AmurriokoEKIN aurrekontuen parte hartze prozesuan boto gehien jaso zuen proposamena.

Parte-hartze filosofiari eutsi diote jolastoki hori nolakoa izango den erabakitzeko. Eskolako 2 eta 12 urte bitarteko ikasleekin aritu dira horretarako, "nahitaez" jarri behar diren jolas-elementuak zeintzuk diren zehaztu eta behin betiko proposamena adosteko.

Txirristak, saski erako za-

buak, dorreak eta antzeko elementuak eskatu zituzten ikasleek. Hainbat enpresen eskaintzak lortu zituen udalak gero, eta ikasgela guztietan aurkeztu zituzten, ikasleek gustukoena zutena bozkatu zezaten.

Urte amaierarako abian egongo da gunea, tokiko erakundearen arabera.

Herriko enpresak "iraultza teknologikoari" aurre egiteko moduan dauden aztertuko dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurrioko 50 enpresa ikerituko ditu udalak, "4.0 industrial" duten kokapena zein den jakiteko. Mapa osatuko du lortutako emaitzekin, udalerriko enpresa-ehuna "iraultza teknologikoari" aurre egiteko moduan dagoen aztertze-ko eta horri begirako neurri eta ekintzak planteatzeko etorkizunean.

"4.0 industriak dituen ahalmenak, hutsarteak eta aukerak ezagutzen lagunduko du ikerketak", azaldu du tokiko erakundeak. "Iraultza teknologi-

ko hori enpresetara ere iritsiko da; eta, hortaz, konektatuta eta integratuta egon beharko dute, ekoizpen-sistemek denbora errealean datu eta informazio mordoak kudeatu eta interpretatu beharko dituztelako", zehaztu dute.

Mondragon Unibertsitatea
Mondragon Unibertsitateari eskatu diote ikerketa, 7.000 euroren truke. "Autodiagnostikorako inprimakia" prestatuko dute, herriko enpresei helarazteko. Horren ostean egingo da erakunde horiek "4.0 industrial" duten kokapenaren mapa.

Bañueta kaleko aparkalekua eta skate-pista argizatuko dituzte

Bañueta kaleko aparkaleku publikoa eta skate-pista argizatzea onartu du tokiko gobernu-batzarrak. Udalak azaldu du auzokideek eskatutako obra dela: "Auzo-asanbladan udaleko arduradunei jakinarazi zitzaizkien eskakizuna eta, aldi berean, AmurriokoEKIN aurrekontu parte-hartzaileen proiektuan proposamen bezala jaso zen". Tokiko erakundeak adierazi du argizatzea jartzeak skate-pista "urte osoan zehar" erabilgarri egotea ahalbidetuko duela. Bi argi-zutain jartzea da asmoa, hiru argi proiektore eusteko. 13.905,68 euroko aurrekontua izango dute horretarako.

Urduña

Udaberrirako egongo dira amaituta tren geltokiko obrak



5 hilabete beharko dituzte obrak amaitzeko. Urduñako Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hasi dira Urduñako tren geltokian aurreikusitako hobekuntza lanak. Bi nasak handituko dituzte eta labaintzeko ekiditeko zoladura ipiniko dute. Horrez gain, 'strail' motako bidea eta arrapa-

lak jarriko dituzte, nasen artean igaro ahal izateko. Ataria berrantolatatu eta estaldura berrituko dute ere.

Renferen arabera, 5 hilabete beharko dituzte obrak amaitzeko. 486.000 euroko aurrekontua baliatuko dute lan guztiak egiteko.

Aiara

Kili-kili elkarteak sortu dute, haurren aisialdia lantzeko helburuarekin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Kili-kili taldea sortu dute Arespalditzako guraso batzuek. Elkarre gisa egituratzeko tramiteak egiten ari dira oraindik, baina ekin diote jada ekintzak gauzatzeari. Urriaren 31an, adibidez, Halloween jaia egin zuten herrian.

Haurren aisialdia lantzea da elkartearen xedea. Kili-kiliko sustatzaileek aurreratu dute hainbat ekimen prestatzen ari direla Gabonei begira, eta azpimarratu dute egitasmoa "irekia" dela eta inguruko herrietako lagunei ere bideratuta dagoela.

Helbide elektronikoa plazaratu dute, eurekin harremanetan jartzeko: kilikiliarespalditza@gmail.com. Facebook orria sortu

dute baita ere: Kili-kili Arespalditza Elkarteak.

Olentzeroren baserrira bisita

Aiarako Udalak ere hainbat ekintza prestatu du udalerriko haurrentzat. Olentzerok Mungian duen baserrira bisitatzeko txangoa antolatuko du tokiko erakundeak, besteak beste.

Abenduaren 15ean izango da zita, baina gaur (azaroak 15) amaitzen da inskribatzeko epea. Bi modutan eman daiteke izena: cultura@gmail.com helbidera mezu bat bidalita edo 945 399 122 telefonora deituta. Sarrera doakoa izango da hiru urte edo gutxiago dituzte umeentzat, eta zortzi eurokoa gainontzekoentzat. 17:15ean abiatuko da autobusa Arespalditzatik (17:30ean Luiaondotik igarota).

Artziniega

Artziniegako ekoizpen-linea kentzea da CELen balizko eroslearen asmoa

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lucart enpresa-talde italiarra prest azaldu da CEL enpresa-taldea erosteko. Gauzak hala, ez dira itxiko Artziniega, Gueñes eta Zallako lantegiak. Hala ere, iturri sindikalek aurreratu dutenez, ondorio negatibo ugari egongo dira, enpresa-taldearen jabe berriak hainbat "neurri bortitz" aplikatu nahi dituelako.

Alde batetik, lanpostuak suntsitu nahi ditu, langile-kopurua 225tik 145ra gutxituta. Gainera, soldatetan eta lan baldintzetan ere hainbat murrizketa egiteko asmoa du Lucartek. Artziniegako lantegian eragina izango dute aipatutako neurri horiek, bertako ekoizpen-linea kentzea baita ba-



Artziniegako ekoizpen-linea kentzea da Lucart taldearen asmoa. CEL

lizko eroslearen asmoa. Dauden lau makinetatik hiru kendu nahi dituzte, eta laugarrena Gueñesera eraman.

Dozenaka lanpostu suntsitzea ekarriko luke horrek, iturri sindikalek zehaztu dutenez. Dena den, xaboi ekoizpenera bidera-

tutako azpiegitura -Dermo Products Development, hain zuzenbere horretan mantentzea da aurreikuspena.

Iturri sindikalen aburuz, egoera oso txarra izan arren, aukeratu dago oraindik eroslearekin negoziatzeko.

Herriko turismoa eta merkataritza biziberritzeko plana egingo dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Merkataritza eta Turismoa Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO izendapena du gaztelaraz) jarri du abian Artziniegako Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin batera.

Ikertalde Grupo Consultor enpresari esleitu diote diseinatzeako enkargua.

Artziniegako bizilagun eta merkatarien parte hartzea sustatu nahi dute proposamena osatzeko, "etorkizuneko erronkei aurre egiteko ekintza plan egokia eraikitze asmoz".

Iñigo Gomez alkateak zehaztu duenez, urte amaierarako

bukatu nahi dute. Telefono bidezko galdetegiak egiten ari dira horretarako, eta bilerak egingo dituzte dendariekin eta turismoarekin erlazioan tutako agenteekin.


Plana: hilabeteko prozesua

"Plan simple bat egitea da asmoa, ekintzak abian jartzeko balioko duena", azaldu du alkateak, eta aurreratu du 2018ko aurrekontuetan diru partida bat erreserbatuko dutela aurrera begirako ildoak garatzeko.

Norbanakoek ere izango dute ikerketan euren iritzia plazaratzeko aukera, udalaren webgunean egongo den galdetegiari erantzunez.

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA



Bortizkeria matxistak geruza asko ditu

Moztu dezagun errotik!
Har ezazu parte.

ZEUK ESAN: ☎ 116 111

Haurtzararako eta nerabezararako laguntza telefonoa.

SATEVI: ☎ 900 840 111

Indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko arreta zerbitzua.

HEGOAK FORU ZERBITZUA:

Arreta psikosozial eta soziojuridikoa.

AURREZ HITZORDUA:

☎ 945 15 10 15

LAUDIO:

☎ 94 403 48 50

AMURRIO:

☎ 945 89 11 61

herriz herri



“Ikasleen arazoak ez dira eskola eremura mugatzen, horregatik sortu genuen zerbitzua”

GOTZON MINGUEZ OJEMBARRENA (Laudio, 1961) AMURRIOKO UDALEKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUKO LANGILEA DA. AMURRIO DA ESKAINTZA HORI DUEN EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO UDALERRI BAKARRA.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Zertan datza Laguntza Psikologikorako Udal Zerbitzua?

Duela zenbait urte hasi ginen zerbitzu hau eskaintzen. Familiak eskolatik kanpo aholkatzea zen asmoa. Hezkuntza zentroetan egiten genuen lan hasieran, baina konturatu ginen umeak eta nerabeak ez direla soilik ikasleak; eta euren arazoak ez direla soilik klaseko eremura mugatzen. Eskola barruan egonda, ezinezkoa zen familiekin elkarlanean aritzea; beharrezkoa ikusten genuen horretarako gune berria sortzea. Terapia familiarra egitea da gure helburua, ume eta nerabeengana senideen bidez iristea.

Zer da eskaintzen duzuen?

Eskaintzen dugun zerbitzuak hiru arlo ditu: Arazoen prebentzioa, aholkularitza eta esku-hartze klinikoa. Gurea ez da zerbitzu terapeutikoa. Helburua ez da arazo kronikoak, buru-gaixotasunak, konpontzea. Psikologiaren alorrean sartzan diren arazoak jorratzen ditugu, horren patologikoak ez direnak. Arazo emozionalak dira horren adibide: autoestimua-falta, harremanak egiteko zailtasunak, ohiko depresioa, eskola jazarpena, familia gataskak, menpekotasun arazoak (alkohola, bideo-jokoak...) senide baten heriotzak eragindako ondorioak... Ia edonork izan ditzakeen arazoak. Arazo psikosomatikoak ere lantzen ditugu: anorexia ez-patologikoa, lo egin ezina...

Nola lantzen dituzue horrelako kasuak?

6-10 saio inguru egiten ditugu. Sesio horien ostean arazoak bere horretan jarraitzen badu, beste nonbaitera bideratu behar izaten dugu kasua, handiegia delako gure zerbitzuaren bidez tratatzeko. Patologia edo arazo kronikoak dira beste zerbitzu batera bideratu behar izaten ditugunak. Hala ere, kasu gehienetan lortu egiten dugu arazoa gure zerbitzuaren bidez konpontzea.

Nola zuzentzen zarete nerabe eta haurrengana horrelako arazoak tratatzerako orduan?

Gehienetan umeekin zuzenean lan egiten dugu, nahiz eta kasu batzuetan ez den beharrezkoa haiengana zuzentzea. Ume txikien kasuan, adibidez, gurasoak izaten dira guregana jotzen dutenak. Nerabeen kasuan, aldiz, askotan ez dute etorri nahi izaten, eta familiaren bidez konpondu behar izaten dugu arazoa, gurasoei aholkuak emanaz.

Prebentzioa ere lantzen duzuela aipatu duzu. Familia ezinbestekoa da?

Bai. Familia da lehenengo eragin-zirkulua. Beste batzuk daude: eskola, lagunak... baina senideena da beti garrantzitsua, euren ematen direlako “babes-faktoreak”. Autoestimua, gizarte trebetasunak, frustrazioa jasateko ahalmena, baloreak, ohiturak... Guzti horiek familian jasotzen dira batez ere, ez eskolan. Horregatik da garrantzitsua faktore horiek familiaren testuinguruan lantzea. Hainbat baliabide dugu prebentzioa lantzeko. Gurasoen Eskola da horietako bat. Hainbat gai jorratzen dira bertan: autoestimua, erantzukizunak, arauak, ohiturak, nola eztabaidatu nerabeekin, nola irakatsi oinarriko balioak edo ohitura zehatzak... mota horretako gaiak jorratzen ditugu.

Laudioko eta Foru Aldundiko teknikariek elkarlanean aritzen gara, “Prebenfamilia” programaren bidez. Arazo asko komunak dira, antzekoak dira Amurrion edo beste edozein herritan. Horregatik da garrantzitsua beste familiekin elkarlanean aritzea. Laudio, Amurrio, Okondo, Aiara eta Artziniegako familiekin biltzen gara batzuetan, hainbat gairi denon artean heltzeko. Boletinak zabaltzen ditugu baita, hainbat informazio partekatzeko.

Zein arazo dira ohikoenak haur eta nerabeen artean?

Ume txikiekin autonomia ohiturak dira ohikoenak: bakarrik lo, jan edo egoten ikastea. “Banaketarekiko antsietatea” da lantzen dugun arazoetako bat, haurrak eskolara lehen aldiz doazenean ematen dena.

Lehen Hezkuntzan ikasketa teknikak lantzen ditugu, eskolan ere jorratzen diren arren. Antsietatea eta adimen emozionala ere ditugu hizpide.

Nerabeena beste mundu bat da. Lagunekiko edo familiarekiko arazoak agertzen dira; baina ez dira patologiak, ohiko aferak baizik. Noizean behin agertu egiten dira adikzioekin erlazionatutako aferak. Teknologien dependentzia oso ohikoa da, sare sozialekin kasu. Batzuetan tabakoa eta alkohola daude baita ere tartean. Ez dira arazo larriak, baina komeni da tratatzea.

Zer nolako harrera du zerbitzuak?

Azken urteetan 100 familia etorri dira gugana urteko, batzuek beste. 90 kasu inguru izan genituen iaz.

Eskolen barruan ere aritzen gara, guraso batzuekin eremu horretan gaudelako. Harremanetan jartzeko gugana etortzea edo telefonoz deitzea da egokiena, 945 303 940 zenbakiaren bidez.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Araba da erronka
El reto es Álava

26
azaroa
2017

Muqi zaituz!



ARABAKO KONTZEJUETARAKO
Hauteskundeak

Zuk erabaki!

Zuk hautatu!



Araba da erronka
El reto es Álava

herriz herri

Laudio

Zortzi lonjen kanpo-irudia hobetu du udalak



Zortzi lonjen kanpoko itxura aldatu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioko zortzi lonja pribaturen kanpoko estetika moldatu du udalak, "merkataritza paisaia" hobetzeko. Araba kalean daude lokal horietako hiru, eta bana, aldiz, Zubiaurren, Zubiko Kurajon, Herriko Plazan, Elizalden eta Alberto Aceron. Eusko

Jaurlaritzaren Hirigune programaren bidez gauzatu dute ekimena. Udaberrian hasi zuten prozesua. Merkataritza guneetan zeuden lonja pribatu hutsen erregistroa egin zuten lehenbizi. 70 lokal zenbatu zituzten guztira. Horietako 12 "egoera txarrean" zeuden, 27 "hala-moduz" eta 31, aldiz, "egoera onean".

Deialdia bat egin zuten gero, jabeak ekimenean parte hartzera animatuz. 14 aurkeztu ziren orotara, eta horietako zortziren lokalak aukeratu dituzte, hainbat irizpide baliatuta. Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak adierazi du egitasmoak harreara ona izan duela, eta iragarri du hurrengo urtean egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dutela.

Lamuza Parkeko eta beste bi guneetako argiteria sistema berrituko du udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Herriko hainbat guneetako argiteria berrituko dute, Laudioko Udalak jakinarazi duenez. Hiru zonaldeetako argiak aldatuko dituzte: Lamuza Parkekoak, Lamuza Plazakoak eta Nerbioiko Kaleko bigarren zenbakiko zebraidearen alboak.

Amets Mezak azaldu du ez dela "lan puntuala" izango. "Azken urteetan 60.000 euroko diru-saila zehaztu dugu aurrekontuetan. Modu horretan joan gara berritzen herriko zenbait kaletako argiztape-

na". Bi helburu ditu hori egiteak, zinegotziaren esanetan: "Kontsumoa murriztea eta eraginkortasun energetikoa handitzea".

Bost asteko epea

59.983 euro baliatuko dituzte obra hori egiteko. Hala ere, oraindik esleitzeko dago obra. Behin hori zehaztuta, hautatutako enpresak bost aste izango ditu aipatutako zereginak betetzeko.

Mezaren esanetan, hainbat hobekuntza egingo dira baita ere Lamuza Plazako berde-guneetan, "udalaren baliabideekin".

Laudioko zoru industrialaren %75 erabiltzen da gaur egun

Laudioko zoru-industrialaren ia hiru laurdenak baliatzen dira jarduera ekonomiko baterako. Hori da udalak plazaratutako ikerketaren ondorio nagusia. Aiarako Kuadrillak koordinatu du azterketa, Foru Aldundiak finantzatuta.

Erregistroa osatu da, herrian 209 industria-gune zenbatuta. "Espazio horietako 150 tokitan dago jardueraren bat. Gainontzeko 59tan, aldiz, ez da ekin-tzarik egiten", azaldu du Iñigo Martinez Cerrillok.

Zinegotziak adierazi du "pontentzialitate handiko" tresna dela burututako erregistroa, "jarduera ekonomiko berrien garapenerako dauden aukerak erakusten dituelako".

Landa eremuetako bideen inbentarioa egin dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Nekazal eremuko bideen inbentarioa egin du lehenbizikoz Laudioko Udalak. Behin-behineko proposamena aurkeztu zuten iragan astean, azaroko bilkuran landuko baita gaia. Amets Meaza zinegotziak azaldu duenez, auzo batzarretan askotan atera da beharra: "Martxoko udalbatzan aho batez onartu zen". Meazaren hitzetan, baliabideak areagotu dituzte.

Astean bitan Arreta Zerbitzua jarri dute informazioa aurkeztu nahi izan dutenentzat. Era horretan bildu dituzte landa eremuko bide guztien kokapena eta ezau-

garriak jasotzeko fitxak, besteak beste. "Jasotako alegazio batzuk osotasunean txertatu ditugu, beste batzuk baztertu, eta gutxi batzuk moldatu. Proposamen hori da onarpen fasera igaroko dena".

Gaur arte inbentariarik egon ez dela eta, azterketaren beharra eta garrantzia azpimarratu du zinegotziak: "Baserritarren eskaera izan da, bidearen jabetza eta publikotasuna argi izateko dokumentuaren beharra zegoen".

2010ean abiatu zen prozesua, eta zazpi urteren ondoren espero dute onartzea. Hala, hemendik aurrera dokumentu hori izango dute oinarri auzokide, erabiltzaile eta udalaren arteko arazoak ku-

Una
Grieta
en mi
Destino



Alicia Murillo Ruiz en
aluari buruzko monologoa

LAUDIO
UDALA

17.11.17 21 etan
Laudioko kultura etxea

iritzia

Aste ikaragarria

Lehenik eta behin esan behar dut iritzi artikulua hau egiteko nire seme-alaben laguntza jaso dudala. Izan ere, euskaraz idaztea hitz egitea baino zailago egiten zait. Badirudi Ahobizi eta Belarripresten inizatiba berri honek eraginkortasun handia izan duela herriarengan. Ni pertsonalki, belarriprest paperean egon naiz barneratuta 10 egun hauetan. Ez dut zalantzarik izan dinamika honetan parte hartzeko. Nire egitekoa ez da izan bakarrik euskaraz hitz egiten duen jendea entzutea, baizik eta nik nire euskara maila erakustea hitz egiten duen jendearekin hitz egiten ez duenari. Bigarrenik, bizi izandako esperientziagatik aste labur hau ikaragarria eta lagungarria iruditu zait. Duela zenbait urte, aspalditik ahaztuta nuen euskara berriro ere ikasteari ekin nion euskaltegi batean. Nire helburu nagusia hizkuntza menperatzea da, ez modu profesional eta oso landu batean, baina bai elkarrizketa batean arazo barik parte hartu ahal izateko.

Hirugarrenik, aste honetan ikusi izan dudana, uste dut jende ugari (ni barne) armairutik atera garelako, inolako lotsa eta arazorik gabe. Herriko kaleetatik, tabernetatik... inoiz baino euskara gehiago entzun eta egin dudala esan dezaket. (...) Nik diodan moduan, nire euskara "etxean ibiltzeko modukoa da", nahiz eta hitz egiterakoan akats asko sartu, jendeak ulertu egiten nau eta behar denean zuzendu ere, eta hori eskertzekoa da. Esan daiteke herriko jendeak, armairutik ateratzeaz gain, euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartu duela.



JOSUNE AZQUETA

Arrankudiaga-Zolloko belarripresta



MONIKA ZALABARRIA

Arakaldoko ahobizia

Astebete euskararen alde

A ze aste polita izan dudana aho-bizi izanda!

Euskararen alde astebetetz lan egitea planteatu zitzaizanean ez nuen pentsatu ere egin. Oso ideia ona iruditu zitzaizidan eta "abentura" honetan buru-belarri sartzea erabaki nuen. Konpromisoa betetzeko zailtasunak ikusi nituen baina, batez ere, Arakaldo herri txikia izanik, aste osoan zehar agian inor ikusiko ez nuelako, ez nuelako aukerarik izango inorekin hitz egiteko. Dena den, etxean lagundu izan digu esperientzia honek eta lehen umearekin soilik egiten banuen euskaraz, orain senarrarekin ere gehiago jardun izan naizela ziurtatu dezaket.

Laudioko kaleetatik ere erabili dut txapa eta, inork ezer esan ez didan arren, txapari begira ikusten nuen jendea. Gauza bereziak gertatu zaizkit, eta sorpresa politak ere izan ditut. Euskal jendea nor den ezagutu dut, orain arte gaztelaraz aritzen nintzenetako batzuk euskaldunak zirela ohartuz. Horrez gain, konturatu naiz jende asko dela ulertzeko kapaza, nahiz eta euskaraz hitz egin ez.

Astea joan da eta nire konpromisoa bukatu da, baina... pozik nago eskualdeko lehenak izan garelako esperientzia honetan eta oraindik ere nire txapa jarrita eraman dezake dalako. Aktibatuta jarraituko dut abenduaren 3an Urduñan elkar ikusiko dugulakoan...

Esperientzia ederra inolako zalantza barik!

*“Herriko
kaleetatik,
tabernetatik...
inoiz baino
euskara gehiago
entzun eta egin
dudala esan
dezaket”*



GALDERA

Zein izango da zure erronka ahobizi edo belarriprest gisa?



Ieltxu

Ahobizia

Etxean euskaraz hitz egiteko ohitura dugu, neskalaguna eta biok euskaldunak baikara. Baina kalean lagunekin gaudenean gaztelaraz mintzatzen gara. Hori aldatzea izango da gure erronka.



Begoña

Belarripresta

Euskaraz bizitzea izango da nire erronka, beti gaztelaraz hitz egiten dudalako. Euskara ikasten ari naiz, eta ez dut asko erabiltzen. Baina aste honetan gehiago erabiltzeko asmoa dut, belarripresta izango bainaiz.



Mainer

Ahobizia

Lanean euskara erabiltzen dut, ume txikiekin aritzen naizelako. Baina gero lagunartean nagoenean ez dut erabiltzen, ohitura faltagatik. Hori aldatzea izango da nire erronka.



Mikel

Ahobizia

Erronka handiena gurasoekin euskaraz hitz egitea izango da, ez baitute asko erabiltzen. Lagun gutxi batzuekin hitz egiten dut euskaraz, gehienek ez dutelako hitz egiten, jakin arren.



erreportajea

Tartekari Sarearen parte izango dira Urduñako Adi Emakumeak taldea eta Orozkoko Matxintxu elkarteak. 24 orduz dute irekirik telefonoa emakumeen aurkako genero indarkeria salatzen aholkularitza eskaintzeko herritarrei. Orozkoarrentzat 688727188 izango da harremanetan jartzeko zenbakia, eta urduñarrentzat 688727187.

Tartekariak: indarkeria kasuak amaitzeko sareak



Emakumeenganako indarkeriaren aurkako sareak ehuntzea da tartekarien xedea. Aiaraldea.eus



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Eusteko, ihes egiteko edota babestua sentitzeko sarea. Hori da Urduñako Adi Emakumeak eta Orozkoko Matxintxu taldeetako boluntarioen helburua. Funtsean, gertutasuna, konfiantza, babesa eta informazioa eskainiko diete Tartekarien Sarera jotzen duten emakumeei. Urduñarrentzat 688727187 izango da harremanetan jartzeko telefonoa, eta orozkoarrentzat 688727188. Era horretan nahi dute sortu Aiaraldeko elkarte-kideek entzuteko konfiantza eremua.

Aiaraldean Matxintxu eta Adi Emakumeak dira Tartekari iza-

teko urratsa eman duten lehen bi eragileak. Egitasmoa, baina, Bizkaikoa da. Irati Alonsoren esanetan, gaur gaurkoz 37 elkarte osatzen dute sarea, "Babes Soziales emateko 70 agentek". 2012. urtean abiatu zuten dinamika 8 eragile eta 17 lagunekin. Alabaina, denbora igaro ahala kideak eta beharrak areagotu dira: "Igoera progresiboa eman da bost urtetan". Iaz batu ziren ekimenera Urduña eta Orozko. Tartekarien zeregina hainbat lagunek osatzen dute, kopurua zehaztu ez badu ere. Argi du arrazoia: "Udalerrri txikiak dira Urduña eta Orozko, 5.000 biztanletik beherakoak". Horregatik ez ditu datu gehiago aipatu, jendeak ez ditu identifikatu behar. "Eragileen identitatea eta konfidentzialtasuna babesteko

neurria da; eta jakina, artatzen dituzten emakumeena ere bai", erantsi du.

Zergatik eratu sarea?

Arazoen aurrean errazagoa da lagun, senide edo gertuko bategana jotzea profesionalengana baino. Hori dela eta, Babes Sozialeko Agentea figura eratzea erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Izan ere, oro har, ezezagutza da nagusi genero indarkeriari aurre egiteko baliabideen artean: "Horrek bortizkeria harremana mantentzea dakar, askotan emakumeek ez dutelako ezagutzen existitzen diren zerbitzu, erraztasun eta baliabideak".

Haatik ekin zioten Tartekarien Sarea josteari Bizkaiko hainbat elkarte. Nagusiki, Bilbo inguruan errotu zen lehen-

Gaur gaurkoz 37 elkarte osatzen dute sarea. 2012. urtean abiatu zuten dinamika 8 lagun eta 17 lagunekin

bizi; "gerora hedatu da beste eskualdetara". Zortzi eragilerekin heldu zioten erronkari, eta bost urteren buruan laukoiztu egin da kolektiboen inplikazioa. Gertutasuna dute gako, eta telefonoa lanabes. "Tresna nagusia telefono zenbakia da, nahiz eta, normalean, pertsona horiek aurrez aurre ere egoten dira erasotuak izan diren emakumeekin", azaldu du Alonsok.

Tartekarien funtzioak

Egiteko nagusizat dute laguntza eskaintzea bikote edo bikote ohien bortizkeria jasan duten herritarrei. Zehazki, entzumen aktiboa baliatuta egiten dute emakumearen egoeraren informazio bilketa... Horrela, aurreneko diagnostikoa jasotzen dute, salaketa bidea hautatze-

ko: "Bizi duen egoerarekin zer egin nahi duen galdetzen zaio, bere salaketa edo eskaera bideratzeko dauden baliabideen berri emanez.

Esaterako, bortizkeriagatik banatzea pentsatzen ari den emakumea agentearengana bertaratu ohi da erabakiak bere egoeran zelako eragina duen jakiteko: etxebizitza, seme-alabak...". Hori guztia argitzeko profesionalen laguntza dute Tartekariak. Suspergintza elkarte arduratzen da horretaz: "Trebakuntza eta esperientzia handiko elkarte da. Emakumeen arretari garrantzia emateaz gain, eragileei babesa eta aholkularitza eskaintzen diete".

Ildo beretik, biolentziaren kontrako sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak gauzatzen dituzte. Tartekarien lana errazteko, boluntarioei trebakuntzak eta ikastaroak ematen dizkiete, euren jardueran sakontze aldera.

"Babes sozialeko agente" izateko prestakuntza jaso dute Urduña eta Orozkoko emakumeek

Bereizgarrietaz galdetuta, Alonsok dio espazio pribatu, babestu eta seguruak dituztela Tartekariaren Sareek: "Ez dugu inor epaitzen, emakumeak bere egoera lasai asko azal dezakeen gunea da". Emakume bakoitzaren kasua ezberdina da, haren aburuz: "Pertsona bakoitza mundubat da.

Horregatik, aholkularitza bakoitza indibiduala da, kasuan

kasukoa; norberaren nahi eta beharretara egokitzen dugu".

Tartekari izateko zer egin

Tartekari izateko prozesuaz ere mintzatu da Alonso. Izan ere, makina bat pauso eman behar dira "Babes Sozialeko Agente" bilakatzeko. Aurrenekoa izen-ematea da, lehen kontaktua ahalbidetzeko. Ondoren, elkarrizketa fasea gainditu behar du interesatuak, hautaketa baten ondorio baita Tartekariaren Sarea. Langa hori pasatzen dutenek, trebakuntza ikastaroa jasotzen dute. "28 orduko prestakuntza eskuratzen dute zereginei egoki heltzeko", argitu du arduradunak. Bizkaiko Foru Aldundiaren egitasmoa izaki, elkarte partaidearekin hitzarmena sinatzea da azken urratsa: "Kasu honetan Adi Emakumeak eta Matxintxurekin itxi da akordioa. Esandako lau urratsak ezinbestekoak dira programaren parte izateko".

Umorea eta artea, "aski da" esateko tresna

Emakumeen aurkako genero indarkeria salatzen hainbat adierazpen baliatuko dituzte eskualdeko eragileek datozen egunetan.



Alicia Murillo egongo da Laudion, besteak beste. A.M.

Eskaera bat, hamaika adierazpen. Emakumeen ahalduntzea sustatzeko ekimen ugari egingo dira Aiaraldean datozen astean. Udalek eta elkarrekin, kontzientziazio kanpainetatik harago, artearen adierazpen ezberdinak baliatuko dituzte horretarako: ipuin kontaketa, zineforumak, ikastaroak, arte ekintzak, argazki erakusketak...

Herri batzuetan, Artziniegan kasu, bertako emakumeek taularatuko dituzte antzezlanak. Hiriska elkarteko kideak izango dira, hain zuzen, "Las quijanas de Artziniega" obra aurkeztuko dutenak, La Encinan. Igandean izango da hitzordua, 19:00etan. Halaber, kirola aldarri tresna izan litekeela ulertuta, "Berdinkrossa" egingo dute hilaren 25ean. 17:00etan abiatuko da lasterketa frontoitik.

Azaroaren 24an, aldiz, Bel-dur Barik Aiaraldea ikus-entzunezkoen lehiaketaren sari banaketa egongo da Artziniega Museoan. Izan ere, urritik azarora eskualdeko hainbat gazte aritu dira eskola orduetan emakumeen ahalduntzea eta zapalkuntza islatzeko film laburrak sortzen. Amurrioko eta Laudioko ehundik gora pertsonak hartu dute parte dinamikan. Ikus-entzunezko guztiak ikusgai daude Aiaraldea.eus webgunean.

Zinema eskaintza oparora egongo da baita ere eskualdean, emakumeen egoerari buruzko hainbat pelikula proiektatuko baitituzte.

Hitzaldien artean, aldiz, de-

netariko gaiak jorratuko dituzte. Atzo, esaterako, mikromatxismoei buruz aritu ziren Urduñan. Datorren igandean, aldiz, emakumeek politikan bizi duten egoera izango du hizpide Onintza Enbeitak Arakaldon, 19:30ean. Irantzu Varela ere etorriko da eskualdera, baina abenduaren 15ean izango da zita hori, Urduñako Alondegan. Ikastaroen alorrean, auto-defentsa tailerrak izango dira nagusi, Okondo, besteak beste.

Zernahi gisaz, nabarmentzeko da azken urteetan matxismoari aurre egiteko eskaintza anitza. Izan ere, hurrei, gazteei zein helduei bideratutako jarduerak prestatu dituzte eragileek elkarlanean. Horren adibide dira azaroaren 24an Laudionko liburutegian egongo den "Mutila edo neska, zer axola du" ipuin kontaketa; edota ostiral honetan -azaroak 17- Laudion entzungai izango den Alicia Murilloren "Una grieta en mi destino" bakarrizketa.

Amagoia Elezkano

Azaroaren 25aren harira, herri gehienetan deitu dituzte genero indarkeria salatzen kontzentrazioak. Laudiokoa, Urduñakoa, Orozkokoa eta Arespalditzakoa 13:00etan izango dira; Amurriokoa eta Okondokoa 12:00etan eta Artziniegakoa 14:00etan.

Orozkon azaroaren 25eko elkarretaratzea baliatuko dute Amagoia Elezkano auzokideari aitortpena egiteko, 13:10ean. Indarkeria matxistak erahil zuen Elezkano 2013. urtean.



Azaroaren 25ean iaz eginiko ekimenen irudiak. Aiaraldea.eus

2017/11/16

2017/11/29



Egitarian anitz eta oparoa prest indarkeria matxistari aurre egiteko

Ekitaldiandana egingo dute eskualdeko udal eta elkarteek. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna dela eta. Udalerri txikienetan ere egingo dira ekintzak. Arakaldon, adibidez, erakusketak prestatuko dute, eta azaroren 25ean Onintza Enbeita egongo da herriko txokoan hitzaldia eskaintzen, 19:30ean.

Solasaldiak, autodefentsa tailerrak, zinema, ikastaroak... malkina bat jarduera egingo dira abendura arte luzatuko den egitarau morean. Hizlari esanguratsu ugari bertaratuko dira eskualdera: Alicia Murillo, Irantzu Varela, Jeanne-Rolande Dacougna Minkette edota Nazanin Armanian, besteak beste.

Haurtzaindegi zerbitzuak
Hainbat udalek haurtzaindegi zerbitzua prestatu dute programatu dituzten ekintzetarako, baina beharrezkoa izango da aurrerik eskatzea.
Aiaraldea.eus web-guneako "Agenda" atalean topatu daiteke programaguztien gaineko informazioa.

Txapelketa Nagusiaren finalaurrekoa, Amurrión

Amurrión izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren hurrengo zita. Finalurrekoen bigarren itzuliko lehen saioa egingo da igandean Bañueta kiroldegian, 17:00etan.
Sei bertsolari arituko dira norgehiagokan: Beñat Gaztelumen-



Bertsolari

"Ikasle egun feminista" egingo dute Laudion



@BasabeZ

Aiaraldeko Ikasle Eguna antolatuko du ikasle Abertzaleak-ek azaroaren 25erako. Audioko Gazte-txean izango da zita. Kutsu feminista nabarmena izango du egitarauak. Hezkuntza eta feminismoari buruzko hitzaldia egingo dute goizean. Triki-poteoa eta ikasle bazkaria egingo dituzte jarraian, eta "kontzertu kolektiboa" egingo da gero. Olinpiadak, hitzaldia eta bertso saioa egingo dute arratsaldean, eta kontzertuak gauean. Emakumezkoak izango dira oholtzara igoko diren musikari guztiak: Aneguria, Aiala eta Pottors Destroyers.

"Domekero", familia aisian igarotzeko parada



"Domekero" egitasmoa jarri du abian Urtxintxa Eskolak Tertangako Etxean. Igande arratsaldeak familian igarotzea da egitasmoaren xedea. Igandero ekintza ezberdin bat egingo dute horretarako, 16:30etatik 18:30etara. Abenduaren 22an izango da azken saioa.

MUSIKA

11.17-11.26
URDUÑA
MUSIKA ASTEA
Musika poteoak
Hirian zehar (14.or)

11.18
Larumbata
ARETA
AHOBIZI ETA BELARRIPREST
11:30 // Musika tailerra
umeentzat
23:30 // Akerbeltz
Kultura Etxea

11.18
Larumbata
20:00 AMURRIO
KORALIA 2017
"Nerbioi Goieneko abesbatzen kontzertua"
Amurrio Antzokia

ANTZERKIA

11.17
Ostirala
21:00 LAUDIO
BAKARRIZKETA
"Una grieta en mi destino"
Alicia Murillo
Kultura Etxea

11.19
Iganda
18:00 ARTZINIIEGA
ANTZERKIA
"Las quijanas de Artziniega"
La Encina egoitza

TAILERRAK

11.16
Osteguna
17:00 OKONDO
XABOI TAILERRA
Adineko pertsonen aretoa

11.16
Osteguna
17:30 LAUDIO
IKASTAROA
Ahalduzte gimnasioa
Kultura etxea
*Izen-ematea:
94 403 48 50

11.18
Larumbata
10:30 LAUDIO
IKASTAROA
Haur masajea
*Izen-ematea:
94 403 48 50

11.18
Larumbata
10:00 OKONDO

11.21
Asteartea
17:30 ARTZINIIEGA
IPUIN KONTAKETA
"Ipuin txikiak"
Liburutegia

11.22
Asteartea
17:00 URDUÑA
ILUSTRAZIO TAILERRA ETA IPUIN KONTAKETA
Liburutegia

11.24
Ostirala
18:00 LAUDIO
IPUIN KONTAKETA
"Mutila edo neska... zer axola du!"
Udal liburutegia

HITZALDIAK

11.17
Ostirala
18:00 AMURRIO
HITZALDIA
Nazanin Armanian:
"Mujeres del mundo"
Kultura Etxea

11.17
Ostirala
19:00 ARRANKUDIAGA
HITZALDIA
Gaztaina eguna
Arrankudiaga Zollon
Gizarte Etxea

11.17
Ostirala
19:30 ARTZINIIEGA
HITZALDIA
Javi Aspuru: "Bilbo eta bere zubiak"
Artziniega Museoa

11.20
Astelehena
18:00 LAUDIO
HITZALDIA
"Zein zaila den elkarbizitza!"
Erabilera anitzeko udal aretoa

11.20
Astelehena
19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Rafa Iribarren: Jose Cruzen abeltzaina
Kristalezko etxea
(Mazzantiniñen egoitza)

11.21
Asteartea
19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Emilio de Justo



ale Elkarte

Kartelera



LAUDIOALDE
ARETOA

Loving
AZAROAK 18,
LARUBATA
Sarrera: 2 euro

17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

**La Lego
Ninjago**
AZAROAK 19,
IGANDEA Helduak 4 euro eta
12 urtetik beherakoak 2.

16:30



LAUDIOKO
KULTURA ETXEA

**Pasaiaiko
badia**
AZAROAK 21,
ASTEARTEA
Sarrera: Doan

19:00



LAUDIOALDE
ARETOA

**La noche que
mi madre mató
a mi padre**
URRIAK 22
ASTEAZKENA
Sarrera: Doan

17:00



DONIBANE
ARETOA

Toc toc
AZAROAK 19,
IGANDEA Helduak 4 euro eta
12 urtetik beherakoak 2.


19:00



AMURRIO
ANTZOKIA

**Richard
Zirkoina**
AZAROAK 19,
LARUNBATA
Sarrera: 3,6 euro

19:30



AMURRIO
ANTZOKIA

**Era o Hotel
Cambridge**
URRIAK 23,
OSTEGUNA
Sarrera: Doan

18:00



LAUDIOALDE
ARETOA

**Una mujer
fantástica**
URRIAK 24,
OSTIRALA
Sarrera: 2 euro

19:30

**Bisita
gidatuak**
egingo dituzte
Artziniegan
barrena

Bisita gidatuak prestatu ditu Artzi-
niegako Udalak azarorako, herria eza-
gutxera emateko. Ipuin kontalariak ba-
liatu dituzte bisitak girotzeko. Bi saio
egin dituzte dagoeneko, eta beste bi
egitea aurreikusit dute, hilaren 19an
eta 26an. 11:00etan hasiko dira biak
ala biak, parrokian.

IKASTAROA
Autodefentsa ikastaroa
Kultura Etxea
*Izen-ematei: 686587889

**11.22
Asteazkena**
9:30 LAUDIO

SOLASALDIA
"Emakumeen aurkako
bortzkeria mota anitzak"
hausnarketa saioa
Helduen Hezkuntzarako
ikastetxea

**11.22
Asteazkena**
16:00 LAUDIO

IKASTAROA
"Gatazkak eta estresak
kudeatzeko ikastaroa"
Satya Yoga Eskola

UMEENTZAKO
EKINTZAK

**11.16
Osteguna**
17:30 URDUINA

IPUIN KONTAKETA
"Errezeta doktorea"
Alondegia

**11.17
Ostirala**
19:30 ARESPALDITZA

HALA DZIPO
Kontzertu didaktikoa
familientzat
Udaletxea

**11.18
Larumbata**
17:30 LAUDIO

SORGIN ZAPATUAK
"Ezer ez da dirudiena"
antzeziana
Gardeako Gizarte Etxea

**11.18
Larumbata**
18:00 OKONDO

"KOLUNKANTAURI"
Ipuin kontaketa
Okondogoiarenako
Kultura Etxea

**11.19
Igandea**
16:30 TERTANGA

DOMEKERO
Jolasak familian
Tertangako Etxea

**11.19
Igandea**
17:00 MENOIO

IGANDEAK FAMILIAN
Txotxongiloak, jolasak...
Kontzeju etxea

BESTEAK

**11.17
Ostirala**
19:00 ARETA

AHOBIZI ETA BELARRIPREST
Pilota partidak eta
dantza plaza
Kultura Etxea eta frontoia

**11.17
Ostirala**
19:30 LAUDIO

GERTAKARIEN
I. TOPAKETA
Erabilera anitzeko udal
aretoa

**11.17
Ostirala**
21:00 OROZKO

BERTSO AFARIA
Jon Maia eta Sustrai Colina
Eskolako jantokia
Tiketak: Indumah salgai

**11.17
Ostirala**
21:00 ARRANKUDIAGA

AFARIA
Gizarte Etxeko
laguntzaileen afaria
Gizarte Etxea
*Izen-emate muga: azaroak 16

**11.18
Larumbata**
17:00 MENAGARAI

ZINEFORUMA
"La caricia rota" eta
"Abracadabra"
Eskola

**11.19
Igandea**
9:30 OROZKO

TALOASKA
"Ikusezina ikustea: Paseo
toponimiko bat"
Orozko Museoa

**11.19
Igandea**
11:00 ARTZINIIEGA

IBILBIDEA
Ipuin kontalariekin eta
pallazoeekin
Parrokiatik abiatuta

**11.21
Asteartea**
19:00 OROZKO

DOKUMENTALA
"Ei nunca me pegó"
Donibane Aretoa

INFO +
aiaraldea.eus

Dendarien gida

Hurbil daude Gabonak. Eskualdeko saltokiak hasiak dira abenduko txanpari begira jartzen. Merkatarien elkarteek hainbat ekintza antolatzeko asmoa dute abendurako, kontsumoa herrietan geratzea bermatzeko. Tokiko ekoizleek ere hainbat azokatan izango dute euren produktuak ezagutzera emateko parada.

Eskualdeko merkataritza txikiak, negu eta gabon garairako prest

Hotza, goizago iluntzea... hainbat dira neguaren etorrera iragartzen duten faktoreak. Ez da gutxiagorako: hilabete bat barru Gabonetako ospakizunetan buru-belarri sartuta egongo da eskualdea. Hainbat tokitan jarrita daude dagoeneko ohiko bonbilla koloretsuak eta laster piztuko dituzte argiak.

Herrietako merkataritza txikiak badakite hori, eta hasiak dira dagoeneko abenduko txanparako prestatzen. Hainbat ekimen egingo dute eskualdeko merkataritza elkarteek hilabete horretan, kontsumoa herrietan geratzea sustatzeko.

Erakusleihen lehiaketa

Laudioko Apill elkarteak, adibidez, ekintza ugari egingo du Gabonetan. Shopping Eguna prestatu du abenduaren 16rako. Ekintza eta deskontu bereziak egongo dira hainbat dendetan, garai horretan egiten diren erosketak herrietan egitea sustatzeko. Erakusleihen txapelketa egingo dute baita Laudion, herriko saltokiak gabonetara egokitzeko helburuarekin.

Merkataritza txartela

Amurrian, aldiz, tresna bat

baliatuko dute auzokideek herrietan kontsumitzea bultzatzeko: "merkataritza-txartel" berria. Astelehenean aurkeztu zuten APYMCA elkarteak udaleko arduradunekin batera. Orain arteko "Amurrio txartela"ren tankerakoa izango da, baina erabilera berriak izango

Hainbat ekimen prestatu dute merkataritza elkarteek abendurako

ditu, merkataritza haragoko gestioak errazteko.

Txartela baliagarria izango da hainbat udal zerbitzuren kudeaketarako. Udal liburutegiko bazkide txartelaren ordeko gisa baliatu ahal izango da eta kiroldegian sartzeko ere erabili ahal izango da laster. Udalarekin erlazionatutako helbideratu gabeko ordainketak ere gauzatu ahal dira txartel horrekin. 5,



Erakusleihen lehiaketa egingo dute Gabonetan eskualdeko saltokiaren artean. Aiaraldea.eus

10 eta 50 euroko hobariak zozketatuko dituzte tresna berri horren erabilera errazteko. Abenduan, aldiz, aisialdi-txangoak zozketatuko dira. Halaber, erabiltzaileek aukera izango dute hurrengo erosketetarako deskontuak pilotzen jarraitzeko.

Tokiko produktuak

Saltoki handiek geroz eta jende gehiago erakartzen duten arren, nabarmena da merkataritza txikiak duten pisua.

Herriko ekonomiaren parte garrantzitsua dira baita tokiko ekoizleak ere. Denetariko pro-

duktuak ekoizten dira Aiaraldean. Horietako asko kontsumo taldeen bidez heltzen dira erosleengana. Hortaz gain, hainbat azoka eta feria daude Gabonetan, tokiko ekoizleen produktuak ezagutzeko aukera apartak direnak.

Lurrin-denda



%10eko deskontua
50€tik gorako erosketetan
(azaroaren 15etik abenduaren 15a arte)

Ezka kalea 2, LAUDIO - 94 403 00 77

Bitxi-denda




Bitxi bat bizitza osorako da

Moztu iragarkia, Madisera etorri eta parte hartu aparteko zozketan!

Iturralde kalea 6, AMURRIO - 945 892 693





Moda

%10eko deskontua

·Abendu osoan zehar
·Ezin da beste eskaintzekin metatu

1971

 Batzalarrin kalea 8,
LAUDIO · 94 653 30 04

KAPRITX

%10eko deskontuko Gabonetako kupoia

Dionisio Aldama 1-Amurrio / 945049134  

ez&bai

%10eko deskontua

* Abenduaren 1etik 20rako erosketetan
* Ezin da beste eskaintzekin metatu

Ibaizabal kalea 4, LAUDIO · 94 602 08 21 

aranao
ZAPATA DENDA

 www.aranao.eu

Online denda  Doako bidalketak

Dionisio Aldama kalea 1, AMURRIO

CHAROL

%10eko deskontua

Abenduaren 1etik 2018ko urtarrilaren 5era arte
Ezin da beste eskaintza batzuekin metatu

Batzalarrin kalea 11, LAUDIO · 94 672 56 08 

KARAM
ZAPATA DENDA

%10EKO DESKONTUA

Abenduaren 1etik 2018ko urtarrilaren 5era arte
Beste eskaintza batzuekin ezin da metatu

Zumalakarregi 38, LAUDIO · 94 672 44 79  

Kaskibel
zilar-denda

Iragarkia moztu, dendan erakutsi eta
Gabonetako zozketa berezian parte hartuko duzu

Ezka kalea 4, LAUDIO 

kukuma ★★
haur-moda


%10eko deskontua!

Abenduaren 1etik 2018ko urtarrilaren 5era arte
Beste eskaintzekin ezin da metatu

Zumalakarregi 45, LAUDIO · 94 672 60 53
www.kukumamoda.com 

trece 13
Gizonezkoen moda eta osagarriak,
neurri handiak barne

%10eko deskontua
Abenduaren 1etik 20ra arte
Beste eskaintzekin ezin da metatu

Batzalarrin Kalea (Iehen Pio XII) 10, LAUDIO
94 602 51 14 

tximeleta BOUTIQUE

%10eko deskontua

Abendu osoan zehar / Beste eskaintzekin ezin da metatu

Zumalakarregi 50, LAUDIO · 94 672 27 20 

Aiaraldeko
eskaintzarik onenak
zure eskura!


Aiaraldea oparitu

Anitza eta oparoa. Bi hitz horiekin definitu ahalko litzateke Aiaraldeko ekoizleen produktu eskaintza.

Txakolina da eskualdeko produkturik berezko eta ezagunena. Lehen sektoreko industria txiki bat sortu da edari horren inguruan. Zazpi upategi daude Arabako Txakolina jatorrizko izendapenaren atzean, eta kalitate handiko ehunka litro ekoizten dituzte urtero. Munduko hainbat txokotara zabaldu dira eskualdean ekoiztako ardo botilak, eta hainbat sari eta aitortza jaso dituzte.

Edariena soilik ez, elikagaien ekoizpena ere handia eta zabala da Aiaraldean. Gaztak, txorizoak, barazkiak... otordu berezi bat prestatzeko osagai guztiak topatu daitezke bailaran.


Handia da baita produktu horien erosketa eta salmentarako osatutako sarea. Hainbat azoka eta kontsumo talde daude, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena sustatzen dutenak.



ASTOBIZA
HAND MADE


ASTOBIZA, ardo zirrargarriak, Aiarako bailarekiko pasioa eta tradizioarekiko errespetua. Gabonetan oparitu denbora familiari eta gozatu Astobiza.

Jandiola entitatea 16, OKONDO
bodega@astobiza.es
www.astobiza.es
945 89 85 16



Belaunaldi luzez baserriari eta nekaritzari lotuta egon gara, eta egiteko modu horri jarraiki, proiektu berri batean murgildu gara, txakolin mota tradizionalen mahatsak lantzeko, eta horrela, botil bakoitzean gure lanaren eta gure lurraren fruiturik onena eskaini ahal izateko.

Urruti auzoa, 85 - DELIKA
649 390 942
info@arزابrotxakolina.com
www.arزابrotxakolina.com



kotnatura



Kotoi organiko eta ehun jasangarriekin egindako kamiseta eta izerditakoak. Bilduma bereziak www.kot.eus web gunean eros ditzakezu.

OiloBide
Arrautz ekologikoen baserria



Bi produktu berri aurkeztu ditu Oilobidek: oilo salda ekologikoa eta barazki krema. Produktu horien oinarrian oiloen aprobetxamendua dago, Ainhoak mimo handiz zaindua, natur zikloaren ondotik.

Lendoño Goikoa, URDUÑA
669362980
www.oilobide.com

ARTOMAÑA TXAKOLINA



EUKENI TXAKOLINA
Txakolin fresko, argitsu eta fruta usainduna. "Hondarrabi Zuri" mahats motarekin egina. 12 gradu inguru ditu.
Jatorrizko Deitura:
Arabako Txakolina

Masalarreina z/g, Artomaña (Amurrio)
T.620 00 74 52
info@artomanatxakolina.com
www.artomanatxakolina.com

Kultura

Azaroaren 17tik 26ra luzatuko da Urduñako Musika Astea aurten. 17 taberna eta taldek hartuko dute parte Poteo Musikalaren VI.

edizioan. Ez dira faltako aurreko urteetan eginiko ekintzak: herri bazkaria eta hiriko musika taldeen kontzertua, besteak beste.

Urduñako Musika Astea, kolore guztietako musiken topaleku



Urduñako hainbat musika taldek hartuko dute parte egitasmoan. Aiaraldea.eus



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Urtero errepikatzen den zita da Urduñako Musika Astearena, baina inoiz ez da berdina izaten. Talde eta doinu ezberdinak entzun daitezke edizio bakoitzean.

Estilo aniztasuna da nagusi. "Rock&Rolla, bluesa, jazz, funkya... denetarik izango dugu aurten", azaldu du Liborio kolektiboko Ramon Diazek, "musikarien kalitatea hobetzen saiatzen gara urtez urte".

Poteo musikala

Astebete baino gehiago iraungo du musika asteak, bi asteburu hartuko baititu, azaroaren 13tik 19ra eta 24tik 26ra bitartekoak.

Poteo musikala da ekintzarik esanguratsuenetarikoa. 17 tabernek hartuko dute parte ekimen horren VI. edizioan.

Musika emanaldia egongo da taberna bakoitzean. Biga-

rren asteburuan, aldiz, bestelako jardueraz gozatzeko aukera egongo da. Larunbatean-azaroak 25- bazkaria eta "Jam Session" egongo dira Gaztetxean. "Jende guztiari irekita dago, ez da musikaria izan behar parte hartzeko", nabarmendu du Diazek. Iluntzean beste zita garrantzitsu bat egongo da Andra Mari Elizan: hiriko musikarien emanaldi bateratua.

Ondorengo talde eta norbatako arituko dira: Fita Fik musika eskola, Biguri eta Barcina, Abesti Popularren Taldea, Fernando Eguiluz, Urduñako Oilarak, Getxa Goi txistu taldea, Abesbatza Elkartea eta Santa Zezilia Banda. Igandean, aldiz, kalejirak eta meza musikatuak egongo dira.

Ibilbide luzeko egitasmoa

Liborio kolektibokoen iritziz, Musika astea "oso ibilbide luzeko" egitasmoa da. "Musika bandak antolatzen zuen hasierabatean, eta Liborio kolektiboko ki-

deoi luzatu ziguten gero egitas-mora batzeko gonbita". Musika elkarteko lagunek hainbat ideia berri proposatu eta eginkaritu zituzten, poteo musikala tartean. "Tabernei poteoaren ekimena proposatu genienean ezetz esango zigutela uste genuen, baina baiezko erantzuna jaso genuen", oroitu du Diazek.

Eskualdeko taldeak

Presentzia nabarmena izango dute Aiaraldeko taldeek musika astearen programazioan. "Urduña eta Amurrioko laupabost talde egongo dira", iragarri du Diazek, "eskualdean aktibo dauden taldeei beti luzatzen diegu parte hartzeko gonbitapena".

Moonshine Wagon izango da joko duen taldeetako bat. Goiatz Dutto musikari audioarraren proiektuak Foru Plazan eskainiko du emanaldia azaroaren 18an arratsaldeko zortzietan, European eta Estatu Batuetan ehunka kontzertu eskaini ostean.

EGITARAUA

11.17

Ostirala

20:00 // VI. Poteo Musikala
Hiria: Toman kantautorea
La Unión: Grand Matter taldea (23:00etan)

11.18

Larunbata

13:00 // VI. Poteo Musikala
Llarena: Carlos Velasco & Hugo Silveira
Sutegi: Baxter
Bar X: Rusted

13:30 //

Sortetxe: Catorce Cuerdas
Marrazki: Three Devils
Jubilatuena taberna: Placton

20:00 // Foru plazan

Moonshine Wagon & Mud Candies

23:00 // VI. Poteo Musikala

Lupardika: Music Box
Mugalde: Alex Ferreira (1:00etan)

11.19

Igandea

13:00 // VI. Poteo Musikala
Belatzgorri: Black Floyd
La Posada: Asúca Namá
Rómulo: Steel Covers

13:30 //

Batzoki: Lee Junior
Gorobel: La Mara

11.24

Ostirala

20:00 // VI. Poteo Musikala
La Noche: Peri Flay
Amnesia Inn: 80's Beat (00:00etan)

11.25

Larunbata

13:00 // Poteoa musika tresnekin

15:00 // Bazkaria

16:00 // Jam sessiona

20:00 // Urduñako musika taldeen kontzertua
 Andra Mari elizan

11.26

Igandea

10:00 // Kalejira GetxaGoi txistulari taldearekin eta Klarinen Bandarekin

12:00 // Meza musikatua
 Santa Zezilia bandarekin.
 Ondoren, **kalejira**

Laudioaldeko zinema eskaintza handituko dute



Hemendik aurrera zabalagoa izango da Laudioko zinema eskaintza. Izan ere, Laudio Top Zinema programa ez ezik, "Zinema Euskaraz" eta "Bidaiariak Zinemara" programak gauzatu dituzte aurrerantzean. "Zinema Euskaraz" egitasmoaren bitartez euskaraz bikoiztutako filmak ekarriko dituzte Laudioa. Tokiko pelikulak eta europarrak emango dituzte. Iaz 8 film izan ziren, gehienak umeentzat. "Bidaiariak Zinemara" programak, ordea, kultura kontsumoa sustatzea du helburu. Berez, estreinaldiak proiektatuko dituzte hori baliatuta. Indargune gisa, 2 euroko deskontua egingo diote ikusleari. Hau da, estreinaldiko pelikulek derrigorrez 5 euroko prezioa badute, Laudion 3 euroren truke ikusi ahal izango dira.

Rubén eta David Blyth garaile Getxo Express film laburren lehiaketan



Rubén eta David Blyth anaiek lehen saria eskuratu dute Getxo Express film laburren lehiaketan. Lehiaketaren antolatzaileek 48 ordu baino gutxiago eman zizkieten parte hartzaileei film laburra sortzeko. Arespalditzako anaiek Adrián Nogales, Carlos Maestre, Julián López eta Iñigo Larreinarekin osatu zuten taldea. Muga ordua baino 5 minutu lehenago aurkeztu zioten epaimahaiari emaitza.

Blyth anaiek lan ugari egin zuten horretarako: filma ekoiztu, argiteria eta soinua kontrolatu grabaketan, efektu bereziak txertatu... Gainera, David Blyth izan zen istorioaren protagonista.

TXIRRINDULARITZA

Koba Cycling CX Team sortu dute, "Munduko Txapelketan lehiatzeko prest"



Iragan ostiralean aurkeztu zuten taldea, Abiaga jatetxean. Koba Cycling CX team.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ziklokros talde berria eratu da eskualdean: Koba Cycling CX Team. Amurrioko, Laudioko eta Aiara txirrindulariz dago osatua. Azaroaren 10ean egin zuten aurkezpena Abiaga jatetxean.

Amurrioko Koba Cycling bizikleta dendan piztu zen ziklokros talde berria sortzeko grina. Bi urte t'erdia darama dendak irekirik. Ohiko bezero eta lagunen artean aspalditik esku artean zuten proiektua egikaritu eta Koba Cycling CX Team ziklokros taldea sortu dute horrela.

Herriko hainbat komertzio eta talderen laguntza jaso dute proiektua aurrera ateratzeko: Kuskumendi Mendi Bizikleta Taldea, Alex Tailerra, San Joseko harategia, Abiaga jatetxea edota Etxeondo txirrindularitza arropa ekoizlea dira laguntzaileetako batzuk

Eskarmentu handiko txirrindulariak elkartu dira taldean, bederatzi kide guztira: hiruk elite kategorian parte hartzen dute, eta gainontzekoak "master 30" eta "master 40" kategorietako lehiakideak dira.

Elite kategorian arituko dira Amurrioko David Hidalgo eta Josu Albizua zein Laudioko Jon

Eskarmentu handiko bederatzi txirrindulari batu dira taldera. Munduko ziklokros txapelketan parte hartuko dute abenduan

Lainz. Ibilbide luzekoak dira. David Hidalgo, esaterako, Javier Ruiz de Larrinaga Zuiako ziklokrosariaren mekaniko ofiziala izan da urte luzez eta emaitza oso onak lortu ditu hainbat txapelketetan. Josu Albizuak, bestalde, Euskadiko Federazioko lehengo dortsala darama eta emaitza paregabeak lortu ditu.

Munduko Txapelketa helburu

Taldea sortu berri duten arren, ez dira makalak epe laburrera begirako erronkak. Abendu hasieran Belgikako Mol hirira joango dira Munduko Ziklokros Txapelketan parte hartzeko.

Amurriorako ere badituzte proiektuak: Ziklokros eta beste txirrindularitza modalitate batzuentzako zirkuitu finkoa eraikiko dute Refor inguruko zelaietan, Kuskumendi taldearekin batera. Sortze bidean egon arren, bi urteko epean lasterketa bat antolatzeko ideia jorratzen hasi dira.

Etorkizunari begira, ilusioz begiratzen diote Koba Cycling CX Teameko kideek ziklokrosak azken urteotan izandako gorakadari. Izan ere, nabarmen egin du gora eskualdean disziplina honetan aritzen diren txirrindulari kopuruak. Hori dela eta, "pozik daude ziklokrosaren loraldi horren parte direlako.

MENDI-DUATLOIA

Aritz Iturribarria Arabako Kopan garaile



Hiru lasterketan lehiatu da Aritz Iturribarria urria eta abendua bitartean. A.I.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaramendi trail taldeko Aritz Iturribarria gailendu da Arabako Mendi Lasterketen III. Kopan. Urriaren 22an lehiatu zen kopako azken lasterketa Legutian.

Jarindo Albertia mendi lasterketarekin eman zioten amaiera norgehiagokari. Bost lasterketa izan dira guztira: Araiaiko Mitxarro bira, Egileta-Dulantzi mendi maratoni erdia, Amurrio Trail Lasterketa, Peregañako igoera eta Legutioko Jarino Albertia mendi lasterketa.

Artziniegako kirolariak, arazo fisikoak tarteko, denboraldi gorabeheratsua izan du. Legutiko mendi lasterketan lortutako 5. postuak Arabako kopangailentzera eramandu, orotara 1.187 puntu eskuratuta.

Urtarrilean indartsu hasi zuen Iturribarriak denboraldia. Udaau-

rretik 10 lasterketa baino gehiagotan parte hartu zuen eta emaitza onak izan zituen. Ekainera, ordea, ahul iritsi zen: Peregañako igoeran lasterka ordez atsedean hartzea behartua ikusi zuen bere burua.

Pozik egoteko moduko urtea

Irailen ekin zien berri entrenamenduei, urria eta abendua bitarteko lasterketak laburragoak eta azkarragoak baitira.

Eragozpen fisikoak medio hiru probetan lehiatu da bakarrik, tartean Arabako Mendi Lasterketen III. Kopa irabazi du. Aritz Iturribarriak ez du, ordea, denboraldia amaitutzat eman; abendua bitarte toki gehiagotan korrika egitea espero du.

Pozik egoteko moduko urtea izan du Iturribarriak. Hurrengo denboraldian asko pentsatu ez badu ere, urtarrilean asfaltoko lasterketa bat ondo prestatzea gustatuko litzaioke.

TXIRRINDULARITZA

Reforrera mugitu dute bizikleta museoa

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Refor eraikinean egongo da aurrerantzean Amurrioko Bizikleta Museoa, enpresa hazitegiaren alboan. Iragan azaroaren 5ean inauguratu zuten kokapen berria. 2007 urtean ireki zuten museoa, eta Licor Kapy enpresaren egoitza zaharrean egon da orain arte. 1.500 argazki, bizikleta eta maillotek osatzen dute bilduma, txirrindularitzarekin erlazionatutako beste hainbat elementurekin batera.

"Udalak laga digu espazioa. Aurrekoa baino apur bat txikiagoa da, baina baita abegikorragoa ere", adierazi du Alfredo Cerrillok. Amurrioko Txirrindularitza Klubaren lehendakari ohia- ren izena jarri diote museoari. Hemendik eta abendura bitarteko larunbat guztietan egongo da Cerrillo kokaleku berrian, 10:00etatik 13:00etara, erakusketa bisitatu nahi duen orori gidari lanak egiteko. Josune Irabien alkateak jakinarazi du "urteko ia egun eta ordu guztietan" egongo dela museoa irekita.

kirola

MARATOIA

300 lagun batu dira Urduñako Mendi Maratoian

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako lehenengo mendi maratoia antolatu zuten larunbatean. Eguraldiak lagunduta, 300 kirolari elkartu zituen frogak Gorobel inguruan lasterka.

Hiru lasterketa antolatu zituzten: 42 kilometroko mendi maratoia, 25 kilometroko lasterketa eta 12 kilometroko froga herrikoia. Eskualdeko korrikalariak hiruretan izan zuten zer esana eta podiumera igotzea lortu zuten ia kategorian guztietan.

Lasterketa nagusian Arantzazu Perez eta Veronica Dominguez elkarrekin gurutzatu zuten helmuga. Gizonezkoen kategorian Xabier Zarranz Osinagak lortu zuen lehenengo postua 42 kilometroak lau ordu baino gutxiagotan osatuta.

25 kilometroko frogan Joseba Urbano orozkoarrak jantzi zuen



Arantzazu Perez de Arenaza eta Veronica Dominguez, metan. Irati Moreno Fernandez

txapela. Emakumezkoen artean Izaskun Larrinaga laudioarrak bigarren postua eskuratu zuen.

Lasterketa herrikoia

Lasterketa herrikoian ere eskualdeko kirolarien presentzia nabaria izan zen lehenengo pos-

tuetan. Emakumezkoen artean Maider Urtaran laudioarra gailendu zen atzetik Oihane del Valle orozkoarra zuela. Gizonezkoen artean Urko Ibarrola izan zen bigarrena helmuga zeharkatzen.

BORROKA ARTEAK

Espainiako faxismoaren ikurra KOz garaitu du Aratz Garmendiak

Testua
Aitor Aspuru Saez

11.000 ikusle baino gehiago batu ziren larunbatean Bilbao Arena kirol pistan, Miribilla auzoan. Ringaren gainean bi borrokalaria euskaldunek eta bi valentziarrek talka egin behar zuten; Ieltxu Tralleroren aurka eta Aratz Garmendia Jose Luis Zapater "Titin"-en kontra. Borroka giroa apur bat ezagutzen

zuenak, bazekien bi valentziarrek muturreko eskuinarekin lotura estua izan dutela eta bolo-bolo zebilen informazioa ikusleen artean.

Borrokaaldia

Pare bat kolpe bota bezain laster, borrokalaria ringaren txoko batean korapilatu ziren, desgaste borrokan sartuta.

Jendea "jo ta ke" oihukatzen hasi zen, eta tarte bat loturik

eman eta gero, Aratzek lortu zuen Titinen besarkada askatzea eta "clinch"-ari ekin zion, aurkariaren burua esku artean hartuta baitzuen egurtzeko; hiruzpalau belaunakada jaso ostean, valentziarra saiatu zen berriro Aratzen hankak harrapatzen, eta hori izan zen bere azken akatsa: Aiaraldean bizi den kirolariak belaunarekin egin baitzion harrera konorterik gabe uzteko.

ZIKLOKROSA

Eskualdeko txirrindulariek podiumak betetzen jarraitzen dute



Podiuma zapaldu dute eskualdeko kirolariak. Aiala Txirrindulari Elkarteak

Testua
Aitor Apuru Saez

Eskualdeko txirrindulariek emaitza borobilak lortu zituzten larunbatean Arbulo udalerrian, Arabako Ziklokros lasterketan. Mikel Beraza txapelduna izan zen kadete kategorian.

Ander Lopezek, aldiz, hirugarren postua eskuratu zuen. Bigarren postuan eman zuen lasterketaren zati handia, baina gorpila zulatu zitzaion. Junior kategorian Iñaki Guaresti izan zen lehen sailkatua eta Master kate-

gorian Iosu Isasik garaipena erdietsi zuen.

Josu Albizua, bere aldetik, 23 urtetik azpiko kategorian izan zen nagusi. Uxue Albizuak Kadete kategorian irabazi zuen. Bere atzean gurutzatu zuen helmuga Jone Otaolak. Elite kategorian, berriaz, David Hidalgo gailendu zen.

Elorrioren ere podiuma

Gainera, Iosu Isasik birritan zapaldu du podiuma asteburuan. Berez, 3. postua eskuratu zuen Elorrioko Loterien Espainiako Kopan.

MENDIA

Abenturaz jositako mendi jardunaldiak prest

Mendi Jardunaldiak antolatu ditu Mendiko Lagunak taldeak azarorako. Bost hitzaldi eskainiko dituzte guztira. Hilaren 17an Eñaut Izagirre glaziologoa egongo da herrian, Patagonian izandako bizipenak kontatzen.

18an Iker Madoz eskalatzaileak emango du hitzaldia. 19an mendi

ibilaldia egingo dute Larragorriara. 24an "Bizi" film laburra proiektatuko dute eta 25ean Salva Rodriguez zikloturistak hartuko du hitza.

Gorobel Ibilaldiko argazki eta bideo laburren sari banaketa egingo dute jarraian, jardunaldiei amaiera emateko.



Neurrira prestatutako menuak,
lagun, senide edota lankideekin
urte amaiera ospatzeko

MURUETA 14, 48410 · OROZKO · T.94 694 1146

WWW.OSABARENAHOTELA.COM

INFO@OSABARENAHOTELA.COM

HOTEL OSABARENA

Herriko plaza

Bidali zure zorion mezua agurrak@aiaraldea.eus helbidera urriak 28a baino lehen



Irene

Zorionak txikitxuenari!! Laster ospatuko dugu, segi beti bezain txoriburu! Miresle sekretuaren partez!

Miresle sekretua



Haizea / Alaitz

Zorionak maiteak!! Zazpi urte jada!!

Etxekoak



Unai

Zorionak Apodaka! Jaso ditudan multa gutziak zuk ordainduko dituzu ezta?

Mihail



Markel

Super Zorionak ! Primeran ospatu z8ak! Musu bat!

Lagunak



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera azaroaren 24a baino lehen.

Denborapasak

	Euritakoak	Hilero, hilaz ere	IZENA	Narotatu- ez, agorlatu- ez
	DEITURA	Hedabide mota	Barazki lekadunak	
	Unduri			
	Hauskor			
Nasziak, ez estuak	Haren	Dago	Bokata	Bokai biribila
Pl., jakintza mota	Nafarroako hiria	Mutikoa	Trebea, abila	Bukalaraz, apaiza
Ohiko estalkia			Bat gehi bat	
Hiru baten alde bat			Kontso, tikortza	
			Iratsen, garoa	Goiko
			Bokata	
Egile atzizkia	Ordezkari			
Goiko ertzak	Getaren erdian			
			Bokata	Erbion
			Lehenengoa	Sufrea
Berriketa, solaskaldia			Putre	

Argazkilari amurriarra

ERRAZA

	2		5 6	8 7	
3			8 7		
7		9	4		5
9 6 4	7	1			8
1	2	4	6 7		
7 8		9	4 3 1		
6 5 3	8 2 9		1 4		
1		5 8	3		
8 4	1 7				

ZAILA

	2			8	
		8 1		7	
	3 8 9				6
	3 4				2
6			8 5 3		
9			3 4		
	7	3 9 6			
5 9					
	6 7	4 9 8			

9 4		8 3 6			
2		7		5	
	7 6 9				
		4 5			
7		3 2 8 4			
4				2	
8		2 4			
6 4 5					
2 7 3			4 8		

4 3		6			
		3		5 8	
8			4 3		
7	4 3				
6 4		2	7		
					2
6 9	5				
		7 8			
5	2				

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en

FUNERARIA

L A R R A Z



E H O R Z T E T X E A

Zozketa



2
SARRERA BIKOITZ!

Cobra, Revolta Permanent
eta
The Wizard
entzuteko



Azaroak 17ko kontzertuetarako 2 sarrera bikoitz lortu nahi? Zozketan parte hartu!
www.aiaraldea.eus web atarian.

Aiaraldea txiki

IZOTZETAN

pelozirik eta Maripurtzilek izotzetan patinatu nahiko lukete. Aurkituhorien eta ispilatutako irudiaren artean dauden zazpi ezberdintasunak.

Zein

Emaitzak

Aipatza

Hemen edo norma dira gauzak ez ge...



Erretratu hauetan ikusten dituzun lagun hauek denak ikaskideak izan ziren baita. Begira iezaiozu orain dela 25 urte egindako argazkiari. Ba al dakizu zein den zein?



Arrotza

en ageri diren elementuak jardun ofizio jakin batean erabiltzen dira alki. Denak, salbu eta bi. Zeintzuk gainerakoekin bat ez datozen biak, jardun jakin horretan erabiliko gaituzkeenak?

MOZORRO FESTA

Margotu irudiok zure gustura.



Kontra

Aiaraldetik mundura

Wally Gobetz



Jone Iriondo Darriba

JAIOTERRIA
LAUDIO (1992)

BIZILEKUA
BUENOS AIRES (ARGENTINA)

BIDAIAREN XEDEA
IKASKETAK



ARGENTINA



DESKRIBAPENA

Herrialde handia da Argentina. Klima eta paisaia aniztasuna da nagusi. 1816. urtean independizatu zen herrialdea Inperio Espainiarretik. XX. mendean hainbat estatu kolpe bizi izan zuen, ondorio errepresibo larriekin.

AZALERA

2.780.400 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

44 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Gaztelera.

BITXIKERIAK

Argentinan dago Amerika osoko mendirik altuena: Aconcagua. 6959 metroko altuera du.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
 egunkaria@aiaraldea.eus
 agenda@aiaraldea.eus
 agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
 Audio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

“Nabari da euskal kulturaren pisua Argentinan, modu sotilean bada ere”

Zertan zabilta Argentinan?

Medikuntza ikasten. Medikuntza nire bokazioa zela deskubrituta, non eta nola ikasi ahal nuen ikertzen hasi nintzen. Bigarren ikasturtea egiten ari naiz orain. Pozik nago abentura hau bizi eta karrera hau egin ahal izateagatik argentinarren ikuspuntutik.

Zertan da ezberdina Argentinako bizimodua Aiaraldekoarekin alderatuta?

Ba, egia esan, nahiko ezberdina da. Aiaraldean herriko bizimodua neraman, nahiko lasaia. Argentinan, aldiz, hiriko bizi estiloa daramat, Buenos Airesen nagoelako.

Gauza askok harritu naute, ditugun ezberdintasun kulturalak batez ere. Esaterako, zur eta lur geratu nintzen klasean eta liburategian ikaskideak mate infusioak hartzen ikustean. Aiaraldean pentsa ezina izango litza-

teke klasean “mateatzen” egoitea eta bitartean gailetak eta antzekoak jatea. Lehenik eta behin, arraroa egingo litzaigukeelako eta, bestetik, errespetu falta delako klasea ematen ari denarekiko.

Beste gauza bitxia da ia egunero manifestazioen bat dagoela. Oso mobilizazio animatuak egiten dituzte, niri batukadak datozkit burura.

Baina kontu serioa da, kale asko moztu egiten dituzte, eta horrek hiriko garraio mugimenduari eragiten dio. Buenos Airesen beste ezaugarri batekin lotu daiteke hori: badakizula noiz irtetzen zaren etxetik, baina ez zein ordutan helduko zaren heldu beharreko tokira.

Euskal Herritar asko bizi dira Argentinan. Nabari da euskal kultura eta jendartearen pisua?

Argentina etorkinen herrialdea da. Lunfardo (argentinarren

hizkera) da horren seinale. Izaeran eta jarreretan italiarren kutsua dutela esan daiteke.

Badaude Euskal Etxeak. Euskara irakasten da bertan, baita euskal dantzak ere. Buenos Aireseko Laurak Bat zentroan jatetxea ere badago. Bakailaoaren ordezkari ematen dute, baina goxoa da. Trinketea dauka barruan eta baita Gernikako arbolaren oinordeko bat ere. Dena den, “euskal gaztetxe” bat da nik Buenos Airesen faltan sumatzen dudana.

Modu ez zuzen batean nabaritzen da euskal jendartearen pisua, baina nahiko gauza sotila da. Euskal kulturako sinboloak “argentinizatu” eta eurera moldatu dituzte.

Argentinako egoera ezegonkorra da. Nabaritzen da kalean ezegonkortasun hori?

Gauza askotan nabaritzen da. Herrialdeak duen inflazio ekono-

mikoan, esate baterako. Prezioak ia egunero igotzen dira; atzo 80 peso argentinari balio zuenak gaur 90 balio ditu.

Hego Amerikako beste hainbat herrialdeekin konparatuta, nahiko herrialde segurua da Argentina. Hala eta guztiz ere, lapurreta asko gertatzen dira. Hiririk mugitzaileko kontuz ibili behar zara eta gauzak kontrolpean izan behar dituzu.

Gauzez are eta kontu gehiago erekin aritu behar zara. Nire kasuan, gauzez bakarrik ibiltzea ez da gomendagarria, emakumea eta atzerritarra naizelako.

Drogekin erronka handia dauka Argentinak, heroinaren oinarritzko pasta (Pacoa) “enpanada” bat baino merkeagoa baita. Beraz, pertsona askorentzat jatea baino merkeagoa da eguna drogatuta igarotzea.

Espero dezagun herrialdea hoberrantzat joatea.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

